| Eskaintzaren erreferentzia / Ref. de la oferta: LAB-EAZ-114 | UPV/EHUko Enplegu Foroa Foro de Empleo de la UPV/EHU | Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea |
|---|---|---|
| | BIZKAIKO CAMPUSA | |

## Enpresa-Erakundea / Empresa- Entidad

LABORAL Kutxa

## Lanpostua / Puesto:

EAZ/EKONOMIAN UNIBERTSITATE TITULUA LORTU BERRIAK BULEGOETARAKO

## Lantokia / Lugar de trabajo:

ARABA, BIZKAIA, GIPUZKOA ETA NAFARROAKO BULEGOAK

## Egin beharreko zereginak edo eginkizunak / Tareas o funciones a realizar:

LABORAL Kutxak unibertsitate-titulua lortu berri duten gazteak behar ditu bulegoetarako, honetarako:

- Bezeroen beharrak antzematea, eta egin beharreko merkataritza-ekintzak planifikatzea eta kudeatzea, merkataritza-estrategiei eta orientazioei jarraituz.

- Bezeroei aholku ematea eta tratu pertsonalizatua ematea, LABORAL Kutxaren marka-irudia proiektatuz.

- Bezeroekin harreman komertzial egonkor eta iraunkorrak lotu, fidelizatu eta sustatzea, eta bezeroaren gogobetetzea bermatzea.

- Eskaintza komertziala hobetzen laguntzea, bere zorroko bezeroen beharretan joerak detektatuz.

- Bulegoko gainerako taldearekin elkarlanean aritzea eta koordinatzea, eta haren helburu orokorrak lortzen laguntzea.

## Eskatzen diren betekizunak / Requisitos exigidos:

- EAZ, Ekonomia, Zuzenbide edo antzeko titulazioetako gradua.

- Euskara menderatzea (B2).

- Taldean lan egiteko gaitasuna, bezeroarenganako orientazioa, emaitzetarako orientazioa, dinamismoa eta erabakitzeko gaitasuna duten pertsonak.

## Eskaintzen dena / Se ofrece:

Garapen profesional handiko proiektu eraldatzaile batean sartzea, barne-sustapenerako aukerak eta etorkizuneko proiekzioa. Egituran txertatzea praktika-kontratu baten bidez. Horretarako:

- Talde-lana, elkarrekiko laguntza eta parte-hartzea sustatzen ditugu.

- Pertsonen trebakuntza bizitza profesional osoan garatzeko prestakuntza pertsonalizatzen dugu.

- Behar duzun malgutasuna eskaintzen dizugu, bizitza profesionalaren eta pribatuaren artean oreka egokia egon dadin.

- Erronka berriei aurre egin eta rol berriak hartu ahal izango dituzu.

- Zainduz gure osasun-programaren bidez zainduko zaitugu. Programa horren bidez, aukera izango duzu hauetaz gozatzeko: ohitura osasungarriei eta ongizate emozionalari buruzko tailerrak, fisioterapia digitalaren zerbitzua…

Azken finean, lan-ingurune jasangarriak, integratzaileak eta errespetuzkoak eskaintzen ditugu, gizonen eta emakumeen arteko aukera-berdintasuna bermatzen dugu lan-dinamiketan eta lanbide-karreretan, eta berdintasunaren arloan erreferentzia izateko lan egiten dugu.